



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

ENPLEGUKO ETA GIZARTE  
POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO  
Y POLÍTICAS SOCIALES

## IV. GAZTE PLANAREN LABURPEN EXEKUTIBOA

4. #gazteplana#  
EUSKO JAURLARITZA | GOBIERNO VASCO



# #01

## Sarrera – testuingurua



## IV. Gazte Plana 2020

### Sarrera – testuingurua

- Eusko Jaurlaritzaren IV. Gazte Plana Jaurlaritzak gazteekin hartutako konpromisoaren eta haiei begira egindako lanaren jarraipena da.

#### Eusko Jaurlaritzak gazteekin hartutako konpromisoa



- Plana prestatzeko kontuan hartutako hausnarketak honako elementu hauek izan ditu oinarrian:



## IV. Gazte Plana 2020

### Sarrera – testuingurua



#### Euskadiko Estrategia 2020

- Gobernu Kontseiluak 2012ko ekainaren 12an onetsia, **gazteei eragiten dieten politiken ikuspuntu integraletik egin da, autonomia-erkidego guztiarentzat erreferentziazko esparru orokor bat izateko asmoz.**
- Beharrak, lehentasunezko erronkak, helburu estrategikoak eta jarraibideak zehazten ditu, epe ertainera (2016) eta luzera (2020), euskal gazteen behar eta eskaerei buruzko diagnostiko adostua oinarri hartuta. Halaber, ezartzen da EAEko administrazio publiko bakoitzak bere plana prestatu beharko duela.



#### III. Gazte Planaren ebaluazioa

- III. Gazte Planak **575 milioi euro inbertitu ditu** indarraldian egon den hiru urteetan zehar. Horien baitan, Gazteria Zuzendaritzaren eta Jaurlaritzako beste zuzendaritza batzuen baliabideak sartzen dira, Eusko Jaurlaritzaren estrategia eta jarduketek izaera integratzailea baitute arlo horretan. **Gazterian argi eta garbi ardaztutako gastuaren** ehunekoari dagokionez, inbertitutako 575 milioi euroetatik, **% 71** dagokio gastu horri; hau da, 411 milioi euro.
- Garatu diren jardueren bolumenari dagokionez, **2014 eta 2016 artean, guztira, 686 jarduera abiarazi dira**; alegia, **urtean 200 jarduera baino gehiago, batez beste**. Horietatik 430 jarduera gazte-kolektibora bideratu dira argi eta garbi.
- Ebaluazioak hainbat interes-esparru identifikatzen ditu, plana osatzen duten alor bakoitzak etorkizunean lantzen jarraitzeko: enplegua, etxebizitza, hezkuntza, osasuna, gizarte-ekintza, kontsumoa, kultura, mugikortasun jasangarria eta aisia.

##### Ardatzak eta helburu estrategikoak



1. ARDATZA: Emantzipazioa eta autonomia (12 helburu estrategiko)

Aurrekontuaren % 51  
Jarduketaren % 48

2. ARDATZA: Bizi-kalitatea eta gizarte-kohesioa (19 helburu estrategiko)


Aurrekontuaren % 49  
Jarduketaren % 52

##### Gauzatutako aurrekontua



Guztira: 575 milioi €  
Gazteria ardatz duen zatia guztira: 411 milioi €

##### Ekimenak / jarduketak



Guztira: 686 (urtean 200 baino gehiago)  
Gazteria ardatz dutenak guztira: 430

# IV. Gazte Plana 2020

## Sarrera – testuingurua



### Garapen jasangarrirako helburuak eta Agenda 2030


- Garapen jasangarriko helburuek (GJH) unibertso osoari dei egiten diote hainbat neurri har daitezen pobrezia amaiara emateko, ingurumena babesteko eta bakea eta pertsona guztien zoriona bermatzeko.
- **IV. Gazte Planak garapen jasangarriko hamazazpi helburuetako hamarri erantzuten eta laguntzen die,** eta horien artean, hauek nabarmentzen dira, bereziki, helburu eta xede asko partekatzen dituztelako: kalitate oneko hezkuntza, lan duina eta hazkunde ekonomikoa eta gizarte-desberdintasunak murriztea.



### Partaidetza - inplikazioa

- IV. Gazte Plana **partaidetza-metodologiaren** bidez prestatu da, grafikoan ikus daitekeen bezala.

*Barneko eta kanpoko 80 parte-hartzaile baino gehiago aritu dira IV. Gazte Plana 2020 prestatzeko lanetan.*



# IV. Gazte Plana 2020

## Sarrera – testuingurua



- Gazte Planak transbertsalitate-maila handia dauka, Eusko Jaurlaritzaren gainerako estrategiekin eta planekin: Aztertutako estrategia eta plan guztietatik, **Eusko Jaurlaritzaren 19 plan estrategikok partekatzen dituzte gazteen kolektiboari zuzendutako helburuak edota ekimenak.**

|                                                                                                                      | 1. ARDATZA: Emantzipazioa eta autonomia |             |           | 2. ARDATZA: Ongizatea eta bizitza lasagarria | 3. ARDATZA: Berdintasuna eta | 4. ARDATZA: Gizarte-partaidetza eta konpromisoa |           |               | 5. ARDATZA: Sozializazioa |           |        |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------|-------------|-----------|----------------------------------------------|------------------------------|-------------------------------------------------|-----------|---------------|---------------------------|-----------|--------|
|                                                                                                                      | Enplegua                                | Etxebizitza | Hezkuntza | Osasuna                                      | Gizarte-ekintza              | Partaidetza                                     | Kontsumoa | Mugikortasuna | Kultura                   | Aisialdia | Kirola |
| 2017-2020. Aldian dardarrenda dauden Euzko Jaurlaritzaren planak                                                     |                                         |             |           |                                              |                              |                                                 |           |               |                           |           |        |
| XI. Gobernu Programa (2016-2020)                                                                                     |                                         |             |           |                                              |                              |                                                 |           |               |                           |           |        |
| 2013-2020. Euzko Jaurlaritzaren Osasun-politikak                                                                     |                                         |             |           |                                              |                              |                                                 |           |               |                           |           |        |
| 2017-2021. Euzko Jaurlaritzaren Buruzko III. Plana                                                                   |                                         |             |           |                                              |                              |                                                 |           |               |                           |           |        |
| 2018-2020. Euzko Jaurlaritzaren Etxebizitza Gidaplan                                                                 |                                         |             |           |                                              |                              |                                                 |           |               |                           |           |        |
| Eskola inklusiboaren eta kultur artekoaren eremuan ikasle-tokirik hezkuntza-erretaketako 2016-2020. urako III. Plana |                                         |             |           |                                              |                              |                                                 |           |               |                           |           |        |
| 2015-2018. urako IV. Unibertsitate Plana                                                                             |                                         |             |           |                                              |                              |                                                 |           |               |                           |           |        |
| I. Heziberri 2020                                                                                                    |                                         |             |           |                                              |                              |                                                 |           |               |                           |           |        |
| 2015-2020. urako I. Laneko Segurtasun eta Osasuneko Euskal Estrategia                                                |                                         |             |           |                                              |                              |                                                 |           |               |                           |           |        |
| 2017-2020. urako Enplegu Plan Estrategikoa                                                                           |                                         |             |           |                                              |                              |                                                 |           |               |                           |           |        |
| 2020. urako Enpleguaren Euskal Estrategia                                                                            |                                         |             |           |                                              |                              |                                                 |           |               |                           |           |        |
| EAEko 2020. urako Ekintzailetza Erakunde Arteko Plana                                                                |                                         |             |           |                                              |                              |                                                 |           |               |                           |           |        |
| 2017-2020. urako Euzko Jaurlaritzaren Susterraldaren eta Enpleguaren Ideko Esparru-programa                          |                                         |             |           |                                              |                              |                                                 |           |               |                           |           |        |
| 2017-2020. urako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana                                                            |                                         |             |           |                                              |                              |                                                 |           |               |                           |           |        |
| Euskal Autonomia Erkegoko Gizarte Zerbitzu 2016-2019. urako Plan Estrategikoa                                        |                                         |             |           |                                              |                              |                                                 |           |               |                           |           |        |
| 2017-2020. urako Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lanikidetzaren Hezkuntza-programa lasagarria                    |                                         |             |           |                                              |                              |                                                 |           |               |                           |           |        |
| Kontsumo bideren 2014-2018. urako Plan Estrategikoa                                                                  |                                         |             |           |                                              |                              |                                                 |           |               |                           |           |        |
| 2020. urako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plan (ZTB)                                                          |                                         |             |           |                                              |                              |                                                 |           |               |                           |           |        |
| 2020. urako Mugikortasun Jasangarriaren Gida Plana                                                                   |                                         |             |           |                                              |                              |                                                 |           |               |                           |           |        |
| Mugimendua 2020                                                                                                      |                                         |             |           |                                              |                              |                                                 |           |               |                           |           |        |

Harreman handia maila estrategikoan

Erdi-mailako bat-etortze maila helburuen artean

Harreman apala, jardueri dagokienez

# IV. Gazte Plana 2020

## Sarrera



### XI. Legegintzaldiko Programa

Gaur egun, eta XI. Legegintzaldiaren esparruan, gazte-politikek lehentasuna dute Eusko Jaurlaritzarentzat. Hori horrela izanik, hainbatetan egiten zaio erreferentzia gazteen kolektiboari programan zehar.

#### **I. zutabea: Enplegua, berraktibazioa eta iraunkortasuna:**

I.1 ardatzean (Hazkunde sendoa, enplegu gehiago eta hobeak dakarrena), eta «enplegu gehiago eta hobeak» konpromisoa hartuta, 5. ekimena jasotzen du, gazteen laneratzea sustatzea, alegia.

#### **II. zutabea: Giza garapena, integrazio soziala, berdintasuna eta kalitateko zerbitzu publikoak.**

4. ardatzean (Integrazioarako eta berdintasunerako agenda soziala), «Gazteentzako aukeren etorkizuna» atala eta 125. konpromisoa jasotzen dira. Azken horrek, espresuki, Eusko Jaurlaritzak gidatutako 2020rako IV. Gazte Plana sustatzeko ekimenarekin du lotura, eta aldundiek, udalek, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) eta hainbat gizarte-eragilek parte hartu du berau prestatzen, euskal gazteriaren behar nagusiei erantzuna emateko, besteak beste, arlo hauetan: laneratzea, etxebizitzaren eskuragarritasuna, balioetan oinarritutako hezkuntza, osasuna, gizarte-ekintza, aisia eta kultura, mugikortasuna eta partaidetza. Ekimen horretarako, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila identifikatzen da arduradun gisa.

Laugarren ardatz horretan bertan, «etxebizitza eta hirien berroneratzea» atalean, 143. ekimena jasotzen da, alokairu-araubidea eta gazteen emantzipazioa lehenesteari buruzkoa.

V. ardatzean (Kalitateko zerbitzu publikoak), 158. ekimena jasotzen da, adingabeentzako arreta judiziala garatzeko.



### Gazteriaren diagnostikoa

- Bereziki hurrengo atalean jorratua.

# #02

## Gazteria Euskadin. Egoera eta etorkizuneko erronkak



## IV. Gazte Plana 2020

### Gazteria Euskadin. Egoera eta etorkizuneko erronkak

Euskadiko Gazteen Behatokiak prestatutako *Euskadiko Gazteen Egoerari buruzko Diagnostikoa 2017* azterlanean, luze-zabal aztertzen da Euskal Autonomia Erkidegoko gazteen egoera. Lanaren ondorioetako batzuk nabarmenduko ditugu lerro hauetan:



Behera egiten jarraitzen du Euskadiko biztanleria gazteen proportzioak, biztanleria osoaren aldean; hain zuzen,

▽ **% 36** 2001-2016 artean;



Ama lehen aldiz izateko batez besteko adinak **30 urtetik** gora jarraitzen du;



**Langabezia-tasak** behera egin du, **% 20ko** barreratik **behera**, alegia;



Gazte landunen batez besteko soldata **1.000 euro ingurukoa da hilean**;



Norberaren konturako enplegua urria da, eta autoenplegua baliatzeko jarrera ere minoritaria da;



Emantzipazioko batez besteko adina Europako handienetakoa da: **30 urte, nahi dutena baino 6 urte geroago**;



Euskadin, eskola-uzte goiztiarraren tasak behera egiten jarraitzen du (**% 7,5**);



Euskadiko 30 eta 34 urte bitartekoen taldean, **goi-hezkuntzako titulazio-tasa % 50** ingurukoa da;



Euskadiko **hamar gaztetatik hiru baino gehiago hirueledunak** dira;



Gazteen **% 20k osasun-arazo kronikoak ditu** eta **% 10ek antsietatea edo depresioa dute**;



Gazteen **% 25ek alkohol gehiegi kontsumitu du** edo modu arriskutsuan kontsumitu du galdeketa aurreko hilabeteko egunen batean;



15 eta 29 urte bitartekoen taldean, **GIBaren infekzio berrien tasa 1/10.000 mugatik gorakoa da oraindik**.



16 eta 29 urte bitarteko gazteen **% 2k DBE jasotzen du**;



Bikote barruan izan daitezkeen indarkeria-forma guztien larritasunarekiko **kontzientzia aragotu da**;



2016an, **gazteen % 37,1ek** baliatu zituen **sare sozialak eztabaidak edo salaketak sustatzeko edo zabaltzeko**;



15 eta 29 urte bitarteko pertsonen **aisialdiko jarduera** nagusiak **teknologia berriekin** lotuta daude;



**lagunen arteko euskararen erabilerak behera egin du** 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean;

## IV. Gazte Plana 2020

### Gazteria Euskadin. Egoera eta etorkizuneko erronkak

Gazteen egungo egoeraren analisitik, III. Gazte Planaren ebaluaziotik eta egindako partaidetza-prozesutik, honako erronka hauek identifikatu dira etorkizunera begira arlo hauetan:

| ARLOA                            | ERRONKAK                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                       |
|----------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Enplegua                         | <ul style="list-style-type: none"> <li>Gazteentzako lan aukerak handitzea, eta 20.000 euskal gazteri lehenbiziko lan-esperientzia ematea</li> </ul>                                                                                                                                                                                                            |
| Etxebizitza                      | <ul style="list-style-type: none"> <li>Etxebizitza, ahal dela alokairuan, eskuratzeko bide ematea, benetako emantzipazio-adina euskal gazteek nahi dutenera hurbiltzeko</li> </ul>                                                                                                                                                                             |
| Hezkuntza                        | <ul style="list-style-type: none"> <li>Balioen hezkuntzaren alorra lantzen jarraitzea</li> <li>Gazteen artean eleaniztasuna zabaltzea</li> </ul>                                                                                                                                                                                                               |
| Osasuna                          | <ul style="list-style-type: none"> <li>Gazteen egoera emozionala hobetzea</li> <li>Elikadura osasungarria hobetzea eta jarduera fisikoa sustatzea</li> <li>Sexu-transmisiozko gaixotasunetarako arreta eta prebentzioa</li> <li>Adikzioen eta gazteen osasunerako arriskutsuak diren jokabideen prebentzioa</li> </ul>                                         |
| Gizarte-ekintza eta berdintasuna | <ul style="list-style-type: none"> <li>Gazte guztien gizarteratzea sustatzea, bereziki, enpleguarekin eta garapen pertsonalarekin loturan</li> <li>Gazteen artean berdintasun erreala eta eraginkorra lortzea, sexua, arraza, erlijioa eta sexu-orientazioa aintzat hartu gabe, eta genero-indarkeriaren aurkako borrokari garrantzi berezia emanez</li> </ul> |
| Partaidetza                      | <ul style="list-style-type: none"> <li>Gero eta partaidetza eta ekimen handiagoa duen gazteria sustatu eta babestea</li> </ul>                                                                                                                                                                                                                                 |
| Kontsumoa                        | <ul style="list-style-type: none"> <li>Gazteen artean kontsumo arduratsua sustatzea eta horri buruzko hezkuntza ematea</li> </ul>                                                                                                                                                                                                                              |
| Mugikortasuna                    | <ul style="list-style-type: none"> <li>Garraio publikoko aukerak gazteen behar eta itxaropenetara egokitzea</li> </ul>                                                                                                                                                                                                                                         |
| Kultura                          | <ul style="list-style-type: none"> <li>Aktiboki jarduera kulturalak gauzatzen dituzten gazteen kopurua handitzea</li> <li>Gazteei kultura-eskaintza eskuratzeko aukera ematea</li> </ul>                                                                                                                                                                       |
| Aisialdia                        | <ul style="list-style-type: none"> <li>Aisiazko jardueretan euskararen erabilera sustatzea</li> </ul>                                                                                                                                                                                                                                                          |
| Kirola                           | <ul style="list-style-type: none"> <li>Gazteen kirol-jarduerak sustatzea</li> </ul>                                                                                                                                                                                                                                                                            |

# #03

## Esparru estrategikoa




# IV. Gazte Plana 2020

## Esparru estrategikoa

**5 ardatz estrategiko**, IV. Gazte Plana zabaltzeko alorrak egituratzeko balio dutenak.

Gazteria gizartearen parte aktibo bihurtzen duten elementuak



Gazteek beren bizi-proiektua garatu ahal izateko oinarria

**6 irizpide gidari**, plana inspiratzeko printzipio gisa baliatzen direnak

- Konpromisoa**
- Lehenespena eta fokua**
- Gazteen partaidetza**
- Berrikuntza**
- Transbertsalitatea**
- Ekitatea**

# #04

Ardatzak, arloak, helburuak, ildoak eta lehentasunezko ekimenak



## IV. Gazte Plana 2020

Ardatzak, arloak, helburuak, ildoak eta lehentasunezko ekimenak

IV. Gazte Planaren ikuspegi globala **5 ardatz estrategikotan, 23 helburutan eta 65 jarduketa-ildotan** egituratzen da, guztira.

**1. ardatza. Emantzipazioa eta autonomia**

**2. ardatza. Ongizatea eta bizitza osasungarria**

**3. ardatza. Berdintasuna eta gizarteratzea**

**4. ardatza. Gizarte-partaidetza eta -konpromisoa**

**5. ardatza. Sozializazioa**

Ondoren, IV. Gazte Plan honek biltzen dituen helburuak, ildoak eta lehenetsitako ekimen nagusiak banakatuko dira, ardatzen eta arloen arabera

## IV. Gazte Plana 2020

### Ardatzak, arloak, helburuak, ildoak eta lehentasunezko ekimenak

#### 1. ardatza. Emantzipazioa eta autonomia



#### Enplegua

##### Helburu estrategikoak

##### Jarduera-ildoak

Gerturatze eta abiadura handiagoa hezkuntzatik lan-arlora igarotzean

Prestakuntza lan-merkatuaren eskaerari egokitzea  
Prestakuntza-sistema dualaren garapen integrala  
Enplegurako prestakuntzaren berrikuntza: Enplegatzaileen sentsibilizazioa eta konpromisoa

7

lehentasunezko ekimenak

Kalitate oneko enplegua duen gazte gehiago

Lehenengo lan-esperientziak ematea  
Esperientzia duten gazteen kontratazioa bultzatzea  
Gazteen enplegu-aukerak hobetzea  
Enplegarritasun-baldintzak hobetzera bideratutako gaikuntza  
Gizarte- eta lan-arloko informazioa eta orientazioa  
Gazteentzako lan-aukerak sustatzea EAEko sektore estrategikoetan

18

lehentasunezko ekimenak

Gazteriaren lan-baldintzak hobetzea

Aktibaziorako prestakuntza  
Informazioa eta komunikazioa  
Ezbeharren kopurua murriztea  
Osasuna zaintzea

4

lehentasunezko ekimenak

Gazte ekintzaile gehiago

Bokazio ekintzailea sustatzea  
Ekintzaileen ekimenak babestea  
Ekintzailatza eta gizarte-ekonomia

10

lehentasunezko ekimenak

Baztertuta geratzeko arriskuan dauden gazteak laneratzea

Prestakuntza / gaikuntza hobetzea  
Orientazio eta laguntza espezifikoak

3

lehentasunezko ekimenak

## IV. Gazte Plana 2020

### Ardatzak, arloak, helburuak, ildoak eta lehentasunezko ekimenak

#### 1. ardatza. Emantzipazioa eta autonomia



#### Etxebizitza

##### Helburu estrategikoak

Etxebizitza bat eskuratzeko aukera gehiago gazte-kolektiboarentzat

##### Jarduera-ildoak

Gazte-kolektiboei etxebizitza babestuak lortzeko lehentasuna ematea  
Gazte-alokairua hobetzeko formula eta neurri berriak garatzea

6  
lehentasunezko  
ekimenak



#### Hezkuntza

##### Helburu estrategikoak

Balioetan oinarritutako hezkuntza

Bakea eta bizikidetzatza  
Berdintasuna, errespetua eta genero-indarkeriaren prebentzioa  
Arrisku-egoerak prebenitzeko prestakuntza  
Ingurumen-hezkuntza eta ekonomia zirkularrarekin duen erlazioa

13  
lehentasunezko  
ekimenak

Euskal gazte eleaniztun gehiago

Hezkuntzaren eremu formalean euskara sustatzea eta indartzea  
Hizkuntza-gaitasunak garatzea beste hizkuntza batzuetan, mundura gehiago irekitzeko oinarri gisa

8  
lehentasunezko ekimenak

Aukera-berdintasuna hezkuntza-sisteman

Erraztasunak ematea ikasketetan sartzeko, mantentzeko eta horiek amaitzeko, batez ere, derrigorrezko eskolaldiaren ondorengoetan  
Eskola inklusiboa

5  
lehentasunezko ekimenak

Gazte ikertzaile gehiago

Hasierako etapetatik bokazioak sustatzea  
Gazte ikertzaile eta teknologoentzako laguntza  
Emakume gazteak ikerketari lotutako karreran

12  
lehentasunezko  
ekimenak

## IV. Gazte Plana 2020

### Ardatzak, arloak, helburuak, ildoak eta lehentasunezko ekimenak

#### 2. ardatza. Ongizatea eta bizitza osasungarria



#### Osasuna

##### Helburu estrategikoak

##### Jarduera-ildoak

Gazteen osasun mentala eta emozionala hobetzea

Ongizaterako eta osasun mentalerako hezkuntza

Aisialdiko jarduera osasungarriak sustatzea

Arreta eta prebentzioa antsietate- eta depresio-egoeretarako

Haurren gehiegizko pisua eta obesitatea murriztea

Elikadura osasungarria sustatzea

Gazteen artean jarduera eta ariketa fisikoa sustatzea

Gazteei sexu-bizitza osasungarria izaten laguntzea

Heziketa afektiboa eta sexuala

Sexu-transmisiozko gaixotasunak prebenitzea

Gazteen portaera arriskutsuak eta/edo adikzioak (sustantziarekin edo gabe) prebenitzea

Tabako eta alkoholaren kontsumoa murriztea

Jokoari eta sare sozialei lotutako arriskuen inguruko sentsibilizazioa eta prebentzioa

Trafiko-istripuen inguruko sentsibilizazioa eta prebentzioa

4

lehentasunezko ekimenak

8

lehentasunezko ekimenak

6

lehentasunezko ekimenak

10

lehentasunezko ekimenak

## IV. Gazte Plana 2020

### Ardatzak, arloak, helburuak, ildoak eta lehentasunezko ekimenak

#### 3. ardatza. Berdintasuna eta gizarteratzea



#### Gizarte-ekintza eta berdintasuna

| Helburu estrategikoak                                     | Jarduera-ildoak                                                                                                                                          |                              |
|-----------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------|
| Baztertuta geratzeko arrisku-egoerak prebenitzea          | Oinarrizko beharrak estaltzea                                                                                                                            | 1<br>lehentasunezko ekimena  |
| Nortasun desberdinen arteko berdintasunean aurrera egitea | Berdintasuna etxean eta familian (kontziliazio erantzunkidea)<br>Kolektiboen arteko berdintasuna                                                         | 7<br>lehentasunezko ekimenak |
| Emakumeen aurkako indarkeria errotik kentzea              | Sentsibilizazioa eta prebentzioa (zero tolerantzia)<br>Arreta integrala                                                                                  | 8<br>lehentasunezko ekimenak |
| Tratu txar mota berriak prebenitzea                       | Gurasoen aurkako indarkeriaren detekzioa, prebentzioa eta arreta<br>Eskolako jazarpenaren (bullying eta cyberbullying) detekzioa, prebentzioa eta arreta | 3<br>lehentasunezko ekimenak |

## IV. Gazte Plana 2020

Ardatzak, arloak, helburuak, ildoak eta lehentasunezko ekimenak

### 4. ardatza. Gizarte-partaidetza eta -konpromisoa



Partaidetza



Kontsumoa

#### Helburu estrategikoak

#### Jarduera-ildoak

Komunikazioa, partaidetza  
eta elkarren ezagutza  
bultzatzea

Gazte asoziazionismoaren ekimenak babestea  
Gazte-boluntariorzaren bultzada  
Partaidetzaren kultura eta eztabaidarako guneak  
EGKren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko koordinazioa eta lankidetzak

Kontsumo arduratsua egiten  
duen gazte gehiago

Baliabideen kontsumo eta erabilera jasangarria egiteko heziketa eta prestakuntza  
Komunikazio mota berrietara egokitutako tresna teknologikoen garapena

7  
lehentasunezko  
ekimenak

2  
lehentasunezko  
ekimenak

## IV. Gazte Plana 2020

### Ardatzak, arloak, helburuak, ildoak eta lehentasunezko ekimenak

#### 5. ardatza. Sozializazioa



Kultura



Aisialdia



Kirola

#### Helburu estrategikoak

#### Jarduera-ildoak

Kulturaren kontsumoa bultzatzea eta gazteei zuzendutako zein gazteek sortutako kultura-jarduerak garatzeko interesa indartzea

Gazteentzako kultura-jarduerak sustatzea  
Teknologiaren bidez kultura eskuratzeko modu berriak  
Irakurtzeko ohitura sustatzea

12  
lehentasunezko  
ekimenak

Kirola maila guztietan sustatzea

Kirola sustatzea  
Kiroleko talentu gazteak aintzat hartzea

8  
lehentasunezko  
ekimenak

Aisialdiko eremuetan euskararen erabilera sustatzea

Aisialdiko eremuetan euskararen erabilera bultzatzea

7  
lehentasunezko  
ekimenak

# #05

## Eusko Jaurlaritzaren IV. Gazte Planaren gobernamendua, ebaluazioa eta jarraipena.



## IV. Gazte Plana 2020

### Eusko Jaurlaritzaren IV. Gazte Planaren gobernamentua, ebaluazioa eta jarraipena.

#### Planaren indarraldia

- 2020rako IV. Gazte Plana 2018ko ekitalditik 2021era arte egongo da indarrean

#### Sailen arteko kudeaketarako eta koordinaziorako eredua

- Eusko Jaurlaritzaren 2018-2021rako IV. Gazte Plana zuzentzeko ardura **Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari dagokio.**
- Gainera, plana transbertsala denez eta Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuen zuzendaritza askok parte hartzen dutenez, jasotako ekimen guztiak behar bezala kudeatzeko eta koordinatzeko, **Eusko Jaurlaritzaren Gazteriaren Sail arteko Batzordea** sortu da, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari atxikitako koordinaziorako organo gisa, gazteriaren arloko esku-hartzeen garapena eta aplikazio eraginkorra bermatze aldera, eta aldi berean, esku-hartze horiek sustatzeko organo gisa. Batzordearen zereginak:
  - a) Eusko Jaurlaritzaren gazte-politika integralaren garapena bultzatzea;
  - b) legealdiko plan estrategiko honetan jasotzen diren ekintzen programazioa, jarraipena eta ebaluazioa baliozkotzea;
  - c) elkarlanerako eta koordinaziorako formulak ezartzea Eusko Jaurlaritzaren gazte-politika integralarekin zerikusia duten sailen artean.

#### Gazteriaren Sail arteko Batzordea



- Enplegu eta Gazteria Sailburuordetzari dagokio presidentzia, edo hark eskuordetzen duenari. Idazkaritza, berriz, Gazteria saileko zuzendariari dagokio, edo berak eskuordetzen duenari.



- Plan honek jasotzen dituen arlo bakoitzean eskumena duten sailburuordeek edo kargudun baliokideek edo haiek eskuordetzen dituzten pertsonak –baldin eta, gutxienez, zuzendari-kategoria edo parekoa badu– osatuko dute Batzordea.

- Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko presidentea edo berak eskuordetzen duen pertsona gonbidatuko da Batzordearen saio eta zeregin guztietara, eta hitza izango du, baina botorik ez.

- Mahaiak, komisio teknikoak edo sektorialak, lantaldeak eta sail arteko koordinaziorako gainontzeko bide organiko eta funtzionalak eratu ahal izango dira.

## IV. Gazte Plana 2020

Eusko Jaurlaritzaren IV. Gazte Planaren gobernamentua, ebaluazioa eta jarraipena.

### **2020ko IV. Gazte Planaren ekintza garrantzitsuez arduratzen diren Eusko Jaurlaritzako Sailak eta Zuzendaritzak**

#### **Lehendakaritza**

Lehendakariaren Idazkaritza Nagusia  
Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia  
Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia  
Emakunderen Zuzendaritza

#### **Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako Saila**

Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun Sailburuordetza  
Industria Sailburuordetza  
Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako Sailburuordetza  
Azpiegitura eta Garraio Sailburuordetza

#### **Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila**

Enplegu eta Gazteria Sailburuordetza  
Gizarte Politiketako Sailburuordetza  
Lanbideren Zuzendaritza Nagusia

#### **Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila**

Ingurumen Sailburuordetza  
Etxebizitza Sailburuordetza

#### **Hezkuntza Saila**

Hezkuntza Sailburuordetza  
Lanbide Heziketako Sailburuordetza  
Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordetza

#### **Osasun Saila**

Osasun Sailburuordetza  
Osakidetzaren Zuzendaritza Nagusia

#### **Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila**

Turismo eta Merkataritza Sailburuordetza

#### **Kultura eta Hizkuntza Politika Saila**

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza  
Kultura Sailburuordetza

#### **Segurtasun Saila**

Segurtasun Sailburuordetza  
Ertzaintzaren Zuzendaritza


#### **Lan eta Justizia Saila**

Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailburuordetza  
Justizia Sailburuordetza  
Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko Zuzendaritza Nagusia

## IV. Gazte Plana 2020

Eusko Jaurlaritzaren IV. Gazte Planaren gobernemendua, ebaluazioa eta jarraipena.

### Urteko programazioaren eta ebaluazioaren zikloa



### Amaierako ebaluazioa

- IV. Gazte Plana amaitzean, ebaluazio oso bat egingo da lorpenen ikuspegi globala izateko. Definitutako adierazleen arabera egingo da ebaluazioa, adierazleen tipologia guztiak kontuan hartuz (prozesua, emaitza edo eragina).
- Amaierako ebaluazio-txostena Sail arteko Batzorde Estrategikoan aurkeztuko da.

### Erakunde arteko koordinazioa

- Amaierako ebaluazio-txostena EAEko Gazte Planaren Zuzendaritza Batzordeari aurkeztuko zaio, gazteriaren arloko politikak bultzatzen eta garatzen dituen instituzioen arteko koordinazio- eta lankidetzarako organoa baita.
- Gainera, Eusko Jaurlaritzaren IV. Gazte Planaren programazioaren eta ebaluazioaren berri emango zaie Gazte Planaren Zuzendaritza Batzordeko partaideei, lankidetzarako esparruak identifikatu ahal izateko.
- Azkenik, Eusko Jaurlaritzako IV. Gazte Planaren lanketan foru-aldundiekin, euskal hiriburuetakoko udalekin, EUDELekin eta Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin lan egin den bezala, hau da, modu partekatu eta koordinatuan, Zuzendaritza Batzordean parte hartzen duten pertsonen galdegin ahal izango zaie gazteriaren arloko jardueren inguruan.



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

ENPLEGUKO ETA GIZARTE  
POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO  
Y POLÍTICAS SOCIALES

## 4. #gazteplana#

EUSKO JAURLARITZA | GOBIERNO VASCO